


Ekonomia nagusiak hasi dira pandemiaren kalteak gainditzen

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA
3. HIRUHILABETEA
%4,9


Txinak pandemia epe laburrean kontrolatzea lortu zuen eta oso neurri murriztailerik ezarri gabe. Une hauetan, ekonomia jarduera suspertu dela baieztatu du. Zehazkiago adierazita, Txinako barne produktu gordina (BPG) %4,9 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan eta aurreko hiruhilekoan hasitako hobekuntza finkatu du. Industriaren ekoizpena eta aktibo finkoetako inbertsioa hazi egin ziren, pandemiak iraun bitartean geroraturako gastuak gauzatzearen ondorioz. Aldi berean, esportazioak osasun krisiarekin lotutako eta hortik eratorritako produktuen (osasun babeseko ekipamenduak, ondasun elektronikoak...) eskariak bultzatuta gora egin zuen.



Ameriketako Estatu Batuek ere hobekuntza nabarmena lortu zuten, baina tasa negatiboetan jarraitu zuten. Kontsumo pribatuak galdutako eremuaren zati bat berreskuratu zuen, eta ondasunen kontsumoari dagokionez ere (iraunkorrak zein iragan-korrak) igoera positiboak eskuratzera iritsi zen. Inbertsioak ez zuen hain behera egin, esportazioek eta inportazioek bezala, kanpoko saldoak jarduerari bi hamarren emateko aukera izan baitzuten. Horri guztiari esker, BPGaren jaitsiera %2,9ra mugatu zen, aurreko erregistroa 6,1 puntutan hobetuz. Hiruhileko arteko tasetan, jarduera ekonomikoa %7,4ra handitu zen.


AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPG-A
3. HIRUHILABETEA
-%2,9



EUROPAR BATASUNA 27EN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Herrialdeen artean aldeak dauden arren, Europako ekonomiek antzeko bideari ekin diote aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Horiek guztiek urte arteko aldakuntza tasa negatiboak, bigarren hiruhilekokoak baino intentsitate txikiagokoak, eta hiruhileko arteko hazkunde nabarmenak izan zituzten. Zehatzago esanda, Europar Batasunak %3,9 egin zuen behera urte arteko tasetan eta, aldiz, %12,1 hazi zen hiruhileko arteko tasetan. Informazioa duten Europako ekonomia nagusien artean, Italiak %4,7ra murriztu zuen urte arteko

INERen lehen zenbatespenaren arabera, Espainiako ekonomia %8,7 jaitsi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, beherakada handia baita, baina hobekuntza handia izan du aurreko aldirian erregistratutako %21,5eko jaitsierarekin alderatuta. BPGaren agregatu guztiek, kontsumo publikoak izan ezik, tasa negatibotan jarraitu zuten, nahiz eta haien uzkurdura maila apalagoa izan zen.

Hiruhileko arteko tasetan, hobekuntza hori askoz nabarmenagoa izan zen. Zehazki, Espainiako jarduera ekonomikoak %16,7ko gorakada izan zuen, INEk egiten duen eta 1970ean hasten den serie historikoan hiruhileko batean izan duen aurrerapen handiena baita. Hiruhileko datuen arabera, familien kontsumoak %20,7ko gehikuntza historikoa jaso zuen, eta bigarren hiruhilekoan, berriz, beherakada historikoa izan zuen (-%20,4). Inbertsioak eta esportazioek antzeko bilakaera izan zuten, eta udako hilabeteetan igoera apartak izan zituzten. Lan merkatuari dagokionez, enpleguak, lan egindako orduen arabera neurtuta, -%6,2ko urte arteko aldaketa tasa izan zuen.

EUROGUNEKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



uzkurtzea, Frantziak %4,3ra eta Alemaniak, azkenik, %4,2ra. Hiruhilekoen arteko tasetan, BPGaren igoerak %16,1, %18,2 eta %8,2 izan ziren, hurrenez hurren. Lan merkatuari dagokionez, pandemiaren ondorioak langabezia tasetan islatzen hasi ziren, eta tasa horiek gora egin zuten. Martxoko minimoen ostean (27 Europar Batasuneko langabezia tasa %6,5 izan zen), irailean %7,5era igo zen. Horrek esan nahi du gaur egun 2.200.000tik gora langabe gehiago daudela duela sei hilabete erregistratu zirenak baino .

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF, BEA, Eurostat eta INE.